

**SIGNATURES DES CONVENTIONS RELATIVES AU SOUTIEN  
DES ACTIONS MENEES EN LANGUE BASQUE  
PAR L'ATABAL, BIARRITZ CULTURE ET LASSOSALAI**

-----

**ATABAL, BIARRITZ CULTURE ETA LASSOSALAI EGITUREK  
EUSKARAZ ERAMAN EKINTZAK  
SUSTENGATZEKO HITZARMEN IZENPETZEA**

- DOSSIER DE PRESSE -  
- PRENTSA TXOSTENA -



**SOMMAIRE****PAGE/ORRIA****AURKIBIDEA**

Présentation générale .....	<b>3</b>	Aurkezpen ..... orokorra
L'Atabal .....	<b>4</b>	..... Atabal
Biarritz Culture .....	<b>6</b>	..... Biarritz Culture
Lassosalai – Skate Parkea .....	<b>8</b>	..... Lassosalai – Skate Parkea
Des conventions innovantes .....	<b>10</b>	..... Hitzarmen berritzaileak
Un projet linguistique à l'échelle du territoire .....	<b>11</b>	..... Lurraldeko hizkuntza proiketua

## PRESENTATION GENERALE

### **L'Office Public de la Langue Basque et la Ville de Biarritz signent des conventions avec trois opérateurs du territoire**

Ce mardi 19 février, l'Office Public de la Langue Basque représenté par son président M. François MAITIA et la Ville de Biarritz représentée par M. le Maire Didier BOROTRA ont signé trois conventions avec trois opérateurs importants de la Ville : l'Atabal, Biarritz Culture et Lassosalai gérante du Skate Park.

Ces conventions ont pour but de définir les cadres d'interventions de chaque partie afin de développer la promotion et l'usage de la langue basque au sein des activités de chacune d'elle. Si Biarritz Culture et l'Atabal avaient chacune signé une convention entre 2009 et 2010 (voir par ailleurs), Lassosalai devient la troisième structure de la Ville bénéficiant d'un soutien de l'OPLB dans ses démarches en faveur de l'euskara.

En effet, au-delà de la diversité de leurs champs d'actions respectifs (musique, culture, sport), elles ont toutes en commun un rayonnement large dépassant les frontières de la commune et une volonté affirmée de diffusion et d'usage de la langue basque.

Ces trois opérateurs entretiennent une relation étroite avec le Bureau de la Langue Basque de la Ville de Biarritz et mènent un véritable travail de terrain. Elles sont, par ailleurs, des relais actifs de la politique linguistique mise en œuvre au niveau de la commune.

Avec ces trois conventions innovantes (voir page 10), les conditions sont réunies pour que l'euskara s'installe de façon pérenne et systématique au cœur de leurs activités.

## AURKEZPEN OROKORRA

### **Euskararen Erakunde Publikoak eta Biarritze Hiriak hitzarmenak izenpetzen dituzte lurraldeko hiru eragilerekin**

Otsailaren 19 honetan, François MAITIA Jaunak ordezkatzeko duen Euskararen Erakunde Publikoak eta Didier BOROTRA Auzapez Jaunak ordezkatu Biarritze Hiriak hiru hitzarmen izenpetu dituzte Hiriko hiru eragile garrantzitsuekin: Atabal, Biarritz Culture eta Skate Parkea kudeatzen duen Lassosalai.

Hitzarmen hauen xedea, parte bakoitzaren eskuhartze koadroak zehaztea da, bakoitzaren jardueretako baitan euskararen erabilpena eta sustapena garatzeko gisan. Biarritz Culture eta Atabalek, hitzarmen bat izenpetu bazuten ere 2009 eta 2010 artean (ikus bestalde), Lassosalai, euskararen alde burutzen dituen ekimenetan EEP-ren sustengua lortzen duen Hiriko hirugarren egitura da.

Alabaina, bakoitzaren ekintza eremuen aniztasunetik at (musika, kultura, kirola), denek, molde berean, herriko mugak gainditzen dituen ospe zabal bat eta euskararen hedapen eta erabilpenaren gogo nabarmena daukate.

Hiru eragile hauek lotura hertsia dute Biarritze Hiriko Euskara Bulegoarekin eta zinezko tokiko lana eramaten dute. Bestalde ere, herriaren mailan plantan ezarri hizkuntz politikaren bitarteko aktiboak dira.

Hiru hitzarmen berritzaile hauekin (ikus 10. orria), baldintzak bilduak dira euskara molde iraunkor eta sistematikoan koka dadin haien jardueren bihotzean.

### **Présentation**

L'atabal a été créée en novembre 2005 pour développer le champ des musiques actuelles sur Biarritz, le BAB et le Pays Basque. Les objectifs fixés :

- Développement du secteur des musiques actuelles dans sa globalité, des cultures émergentes et de la vie culturelle locale
- Diffusion de spectacles professionnels et actions de sensibilisation auprès du public
- Formation à la MAO et aux logiciels spécifiques tels que PAO, son et image.
- Soutien à la scène locale (répétitions accompagnées, musicien conseil, aide à la création)
- Education artistique « rock Eskola » (chant, basse, guitare, clavier, batterie 154 élèves).

En 2012, 6 ans après l'ouverture la salle aura connu un nombre record de concerts et d'évènements (près de 90 évènements en 2012 contre 30 en 2011), mais aussi un public venant des quatre coins du Pays Basque.

### **Un engagement en faveur de l'euskara...**

L'euskara est également un des piliers du projet, dans toutes les missions :

- **Communication bilingue sur tous les supports de communication** (plaquette, bêche, encart pub, réseaux sociaux, newsletter, site internet, carte de visite, signalétique interne, flyers, souche billetterie, accueil public)
- **Création de support pédagogique** en lien avec le bureau de l'euskara (Lexique thématique de poche « Musiques actuelles »)
- **Programmation, résidence et soutien à la scène bascophone** (25 groupes en 2012)
- **Mise en place de semaine scolaire** avec le bureau de la langue basque.
- **Collaboration avec les structures et évènements** œuvrant pour la langue basque
- **Formation des agents en langue basque** (3 en 2012).

### **... en voie de renforcement**

L'Atabal s'engage à renforcer toutes les actions en faveur de l'euskara au sein de la structure et avec les acteurs locaux : Augmentation du nombre de salariés en formation euskara, Semaine Scolaire (projet Eskol'arte) et cours de la rock eskola en Euskara, Participation aux événements (Aek Korrika, Mintzalasai, Bi Harri Lau Xori avec biarritz Culture, Euskal Herria Zuzenean, Festi Lasai, GlissEguna, Pazko euskaraz...), Valorisation de l'euskara dans la programmation artistique.

### **Quelques chiffres...**

#### • **IMPACT :**

- Adhérents : 300.
- Fréquentation annuelle : 25.000 (2012).

#### • **COMPETENCES LINGUISTIQUES DE L'ÉQUIPE :**

- Sur 11 :
  - 3 bascopphones
  - 3 bascopphones partiels (en formation)
  - 1 débutante (intégration prochaine en formation)

#### • **HISTORIQUE DE LA CONVENTION :**

- 1ère convention : 03/06/2009.
- 2ème convention : 05/04/2010.

## **Aurkezpena**

Atabala 2005eko azaroan sortua izan da gaurko musiken eremua Biarritze, BAB eta Euskal Herrian gaindi garatzeko. Finkatu helburuak:

- Gaurko musiken arloaren garapena bere orokortasunean, bai eta jalgitzen ari diren kulturena eta tokiko kultur biziarena.
- Ikuskizun profesionalen hedapena eta sentsibilizatze ekintzak publikoarengana
- MAO-ari eta PAO, soinu eta irudia bezalako logizial bereziei formakuntza.
- Tokiko eszenari sustengua (errepikapen lagunduak, musikari aholkularia, sorkuntzari laguntza)
- « Rock Eskola » hezkuntza artistikoa (kantua, baxua, gitarra, giltzadia, bateria 154 ikasle).

2012an, 6 urte gela irekia izan ondoren, kontzertu eta gertakizunen kopurua sekulan baino handiagoa izan da (90 gertakizun inguru 2012an 30 zirelarik 2011n), baina ere Euskal Heriko alde guzietatik etorri publiko bat ere.

## **Euskararen aldeko engaiamendua...**

Euskara ere egitasmoaren zutabe bat da, misio guzietan:

- **Komunikazio elebiduna komunikazio euskarri guzietan** (liburuxka, kanpo estalki, iragarki orri, sare sozial, newsletter, internet gune, bisita karta, barne seinaletika, flyerrak, sartzeko txartel, publikoari harrera)
- **Euskarri pedagogiko sortzea** euskara bulegoarekin loturan (« Gaurko musikak » sakeleko hiztegi tematikoa)
- **Programaketa, egoitza eta eszena euskaldunari sustengua** (25 talde 2012an)
- **Eskola aste baten plantan ezartzea** euskara bulegoarekin.
- **Euskararen alde ekiten duten egitura eta gertakizunekin lankidetzak**
- **Langileen formakuntza euskarara** (3, 2012an).

## **... azkartzen ari**

Atabala engaiatzen da euskararen aldeko ekintza guziak azkartzera egituraren baitan eta tokiko eragileekin: euskaraz formatzen diren langileen kopuruaren emendatzea, Eskola Astea (Eskol'arte egitasmoa) eta rock eskolaren klasea euskaraz, gertakizunetan parte hartzea (Aek Korrika, Mintzalasai, Bi Harri Lau Xori biarritz Culturerekin, Euskal Herria Zuzenean, Festi Lasai, GlissEguna, Pazko euskaraz...), Euskararen balioztatzea programaketa artistikoan.

## **Zenbaki batzuk...**

### • **ERAGINA:**

- Kideak: 300.

- Urteko ikusle kopurua: 25 000 (2012).

### • **TALDEAREN HIZKUNTZ GAITASUNAK:**

11tatik:

- 3 euskaldun

- 3 euskaldun partzial (formakuntzan)

- Hasiberri 1 (laster formakuntzan sartzekotan)

### • **HITZARMENAREN HISTORIKOA:**

- 1. hitzarmena: 2009/06/03.

- 2. hitzarmena: 2010/04/05.



## **Présentation**

Biarritz Culture est une association créée il y a 22 ans, avec pour mission principale de programmer des spectacles sur la ville, en défendant trois grands axes de programmation :

### Le Jeune Public :

Chaque saison est ponctuée par des propositions originales à destination du jeune public, sous des formes variées et certaines fois hybrides, allant du théâtre d'objet à la marionnette, en passant par la danse, ou encore le théâtre plus classique, les propositions s'adressent aux enfants de tout âge. Autour de chaque spectacle accueilli sont organisées des séances scolaires pour les écoles de l'ensemble du Pays Basque.

### La Danse :

Parce que liée à l'histoire de la ville, la danse a toujours été l'axe fort de l'association. Créateur et organisateur du festival, le Temps d'Aimer la danse, l'association durant 10 jours investit la cité en accueillant des compagnies des quatre coins du monde et du Pays Basque, sous la direction artistique de Thierry Malandain.

De plus, forte de son expérience autour de la danse et du jeune public, Biarritz Culture a créé sa première biennale de danse Jeune Public : le Temps des Mômes.

### Bi Harriz Lau Xori

Sans jamais tomber dans le folklore ou l'animation pour touristes en goguette, Biarritz Culture organise des journées consacrées aux expressions basques : Bi Harriz Lau Xori.

Quelques journées qui donnent la parole à des artistes qui par le cinéma, la musique, les arts plastiques, la danse, le théâtre créent au Pays basque et/ou en basque, et offrent une vision contemporaine de la culture.

### ***Un engagement en faveur de l'euskara...***

- Communication bilingue sur les supports de communication.
- Programmation de compagnies de la scène du Pays Basque : Temps des Mômes, Temps d'Aimer, Jeune Public et Bi Harriz Lau Xori (théâtre, danse, musique).
- Action de Médiation scolaire en euskara : ex. Collège Fal de Biarritz (élèves bilingues) : création de la BO d'un court métrage en euskara réalisé par les 4<sup>èmes</sup> en option audio-visuel.
- Formation des salariés (2 sur 3 en 2012).

### ***... en voie de renforcement***

Du fait des changements de l'équipe de Biarritz Culture (départ de l'unique personne bascophone) le renforcement porte essentiellement sur la pratique de l'Euskara des salariés dans le cadre de l'accueil du public, de sa communication et des relations de travail avec l'extérieur.

### ***Quelques chiffres...***

- **IMPACT :**
  - Fréquentation annuelle : 32 000
- **COMPETENCES LINGUISTIQUES DE L'EQUIPE :**
  - Sur 3 : 2 bascophones partiels (en formation)
- **HISTORIQUE DE LA CONVENTION :**
  - 1ère convention : 07/04/2010.

## ***Aurkezpena***

Biarritz Culture duela 22 urte sortua izan den elkarte da eta haren xede nagusia ikuskizunak hirian programatzea da, hiru programatze ardatz nagusi defendituz:

### Publiko Gaztea:

Denboraldi bakoitzean, proposamen originalak eskaintzen zaizkio publiko gazteari, molde desberdinetakoak eta batzutan hibridoak, gauzaki antzerkitik txotxongilora doana, dantzatik, edota ere antzerki klasikoagotik iraganez, proposamenak adin guzietako haurrei zuzentzen zaizkie. Ekarrarazi ikuskizun bakoitzaren inguruan Euskal Herri osoko eskolei zuzendu saioak antolatuak dira.

### Dantza:

Hiriko historiari lotua baitzaio, dantza betidanik izan da elkartearen ardatz nagusia. Dantzaren Maitaldia festibalaren sortzaile eta antolatzaile izanki, elkarteak 10 egunez hiria hartzen du mundu eta Euskal Herri osoko konpainiei harrera eskainiz, Thierry Malandainen zuzendaritza artistikoaren pean. Gainera, dantza eta publiko gaztearen inguruko esperientziaz azkarturik, Biarritz Culturek Publiko Gazte dantza biurtekoa lehen aldikoz sortu du: le Temps des Mômes.

### Bi Harriz Lau Xori

Folklorean edo bisitan diren turistei zuzendu animazioetan sekulan erori gabe, Biarritz Culturek euskal adierazpenei eskaini egunak antolatzen ditu: Bi Harriz Lau Xori.

Zinema, musika, arte plastikoak, dantza, antzerkiaren bitartez artistei hitza eman eta kulturaren ikuspegi garaikide bat eskaintzen dituzten zenbait egun.

## ***Euskararen aldeko engaiamendua...***

- Komunikazio elebiduna komunikazio euskarri guzietan.
- Euskal Herriko eszenako konpainien programaketa: Temps des Mômes, Maitaldia, Publiko Gaztea eta Bi Harriz Lau Xori (antzerki, dantza, musika).
- Eskola bitartekaritza ekintza euskaraz: ad. Biarritzeko Fal Kolegioa (ikasle elebidunak): entzun-ikus opzioan diren 4.ekoek euskaraz burutu labur metraia baten JSB-ren sortzea.
- Langileen formakuntza (3etatik 2, 2012an).

## ***... azkartzen ari***

Biarritz Cultureko taldearen aldaketak direla eta (euskara zekien pertsona bakarra joan baita) indartzea gehien bat langileak Euskararen praktika publikoaren harrera, kanpoarekin komunikatu eta lan harremanak azkartzean datza.

### ***Zenbaki batzuk...***

#### • **ERAGINA:**

- Urteko ikusle kopurua: 32 000

#### • **TALDEAREN HIZKUNTZ GAITASUNAK:**

3 etatik: 2 euskaldun partzial (formakuntzan)

#### • **HITZARMENAREN HISTORIKOA:**

- 1. hitzarmena: 2010/04/07.

## **Présentation**

Fondée en 2002, l'association *Lassosalai* assure la gestion du Skatepark couvert de Biarritz, créé en 2003, grâce au soutien de la municipalité. Elle a pour objectifs de promouvoir et démocratiser la pratique des sports de glisse urbains. Depuis sa création, le skatepark de Biarritz a enregistré une augmentation constante et régulière de sa fréquentation. Cela lui a permis de se professionnaliser et développer la diversité et la qualité de ses prestations.

*Elle* propose diverses « activités » destinées à un public varié.

- un club de skateboard agréé par la Fédération Française de Roller Sport.
- l'accueil du public pour une pratique libre des usagers (51 000 entrées).
- l'organisation d'événements sportifs et culturels

## **Un engagement en faveur de l'euskara...**

*Lassosalai* compte aujourd'hui trois salariés qui assurent la gestion et le fonctionnement quotidien du skatepark. L'équipe, en formation langue basque, exprime une volonté forte d'utilisation et de diffusion de la langue basque, qui s'est d'ores et déjà manifestée par l'édition d'un lexique thématique de poche des sports urbains de glisse, la participation aux manifestations *Mintzalasai*, *Glisseguna*, *Festilasai*, le démarrage de l'apprentissage de l'euskara...

## **... en voie de renforcement**

*Lassosalai* s'engage à maintenir ses efforts par la mise en place d'une communication bilingue sur l'ensemble des supports de communication ainsi que sur la signalétique du skatepark.

Elle proposera prochainement des activités en langue basque et développera des événements en partenariat avec d'autres structures partageant la volonté de promouvoir l'euskara.

### **Quelques chiffres...**

#### • **IMPACT :**

- Adhérents : 600.
- Fréquentation annuelle : 7.665 (2011).

#### • **COMPETENCES LINGUISTIQUES DE L'EQUIPE :**

- Sur 3 :
- 3 bascophones partiels (en formation)

#### • **HISTORIQUE DE LA CONVENTION :**

Première signature.

## **Aurkezpena**

2002an sortua, *Lassosalai* elkarteak, 2003an eraiki Biarritzeko Skatepark estaliaren kudeaketaz arduratzen da, herriko etxearen sustenguearekin. Honen helburuak dira hiriko lerra kirolen praktika sustatu eta demokratizatzea. Sortu denetik, gero eta publiko gehiago ibili da Biarritzeko skateparkean. Horri esker, profesionalagoa bilakatu da eta bere emanaldien aniztasuna eta kalitatea garatu ahal izan ditu.

*Publiko* anitza bati zuzendu « jarduera » desberdinak proposatzen ditu.

- Roller Kirol Frantses Fedrazioak onetsi skateboard kluba.
- publikoaren harrera erabiltzaileen praktika aske baterako (51 000 sartzeko).
- kirol eta kultur gertakizunen antolaketa

## **Euskararen aldeko engaiamendua...**

*Lassosalai* gaur egun hiru langile ditu eta hauek skateparkearen kudeaketa eta ibilmoldea segurtatzen dute. Euskarara formatzen ari den taldeak, euskararen erabilpen eta hedapen borondate azkarra adierazten du, eta hau, jadanik nabarmendua da, hiriko lerra kirolen sakeleko hiztegi tematiko baten argitaratzearekin, *Mintzalasai*, *Glisseguna*, *Festilasai* gertakizunetan parte hartzearekin eta euskara ikasten hastearekin ...

## **... azkartzen ari**

*Lassosalai*, bere komunikazio euskarri guzietan bai eta skateparkearen seinaleetan komunikazio elebidun bat plantan ezartzeko indarrak segitzen engaiatzen da.

Laster proposatuko ditu jarduerak euskaraz eta gertakizunak garatuko ditu euskara sustatzeko xedea partekatzen duten beste egitura batzuekin partaidetzan.

### **Zenbaki batzuk...**

- **ERAGINA:**

- Kideak: 600.

- Urteko ikusle kopurua: 7 665 (2011).

- **TALDEAREN HIZKUNTZ GAITASUNAK:**

- 3etarik:

- 3 euskaldun partzial (formakuntzan)

- **HITZARMENAREN HISTORIKOA:**

- Lehen izenpetzea.

## Des conventions innovantes

Basées sur un diagnostic rigoureux et élaborés conjointement entre les trois parties, ces conventions sont innovantes à différents niveaux :

- **Une dimension tripartite** : la structure s'engage avec le soutien de l'Office Public de la Langue Basque et la Ville de Biarritz.
- **Une période étendue** : elles sont signées pour une période de 3 ans, contre 1 an auparavant. Un comité de suivi se réunira chaque année pour faire le point des avancements et des projets à venir.
- **Une aide calibrée et régressive** : la subvention correspond à 50% des dépenses effectives liées à l'euskara la première année (sur justificatifs), puis sera revue à la baisse les années suivantes, afin d'accompagner l'objectif d'autonomisation.
- **Une visée d'autonomie** : l'objectif est qu'arrivé au terme, les structures soient autonomes en matière d'usage de la langue basque. Elles resteront cependant en relation étroite avec le Bureau de la Langue Basque.

## Des engagements forts

C'est sur un ensemble de mesures concrètes que se basent ces conventions, afin de garantir la transversalité de la langue basque.

En voici les principaux axes :

- **L'usage dans la communication** : supports, site, réseaux sociaux, relations presse, signalétique internet et externe...
- **L'organisation d'actions linguistiques** tournées vers l'usage/la valorisation de la langue basque.
- **L'offre de formations linguistiques à visée professionnelle** pour les salariés volontaires.
- **L'identification du personnel bascophone** en direction du public.
- **La désignation d'un référent euskara** au sein de l'équipe, chargé du suivi général.
- **L'édition de matériel linguistique** : guides, lexique, livret...

## Hitzarmen berritzaileak

Hiru parteen artean burutu diagnostiko zorrotz batean oinarriturik, hitzarmen hauek berritzaileak dira maila desberdinetan:

- **Hiruko Izari bat**: egitura, Euskararen Erakunde Publikoa eta Biarritze Hiriaren sustenguearekin abiatzen da.
- **Garai hedatu bat**: 3 urteko garairako izenpetuak dira, urte bateko egiten zenean lehenago. Jarraipen batzorde bat bilduko da urte guziz, aitzinamenduen eta etorri beharreko egitasmoei buruzko puntu bat egiteko.
- **Laguntza kalibratua eta urteetan apaltzen dena**: diru laguntza, lehen urtean euskarari lotuak diren xahutzeen %50i dagokie (frogagiriekin) eta apaltzera joanen da ondoko urteetan, autonomizatze helburua laguntzeko.
- **Autonomia xede bat**: Helburua da, bukaerara heltzean, egiturak autonomoak izan daitezen euskararen erabilpena mailan. Hala ere, Euskara Bulegoarekin harremanetan geldituko dira.

## Engaiamendu azkarrak

Neurri koherente andana baten gainean dira hitzarmen hauek oinarritzen, euskararen zeharkakotasuna bermatzeko gisan.

Horra ardatz nagusiak:

- **Erabilpena komunikazioan**: euskarriak, gunea, sare sozialak, prentsa harremanak, internet eta kanpo seinaleta...
- **Hizkuntz ekintzak antolatzea** euskararen erabilpen/balioztatze gisan.
- **Profesional xedearekiko hizkuntz formakuntzak eskaintzea** hala nahi duten langileentzat.
- **Langile euskaldunen identifikazioa** publikoari zuzentzeko.
- **Euskara erreferente baten izendatzea** taldearen baitan, jarraipen orokorraz arduratzeko.
- **Hizkuntz materiala argitaratzea**: gidaliburuak, hiztegi, liburuxka...

## Un projet linguistique à l'échelle du territoire

L'accompagnement des acteurs dans leurs démarches de bilinguisme est un des objectifs du Bureau de la Langue Basque. Ce point figure par ailleurs dans la convention signée le 17 juillet 2007 et renouvelée le 4 février 2011, entre la Ville de Biarritz et l'Office Public de la Langue Basque.

En 2012, le Bureau a accompagné une quarantaine d'acteurs dans leurs démarches de valorisation de la langue basque, par des traductions, un soutien à la communication, une aide à l'organisation, des conseils, ...

Associations, commerces et autres structures parapubliques travaillent ainsi en étroite collaboration avec le Bureau de la Langue Basque (ALSH Moursicot, Ohakoa, Uda Leku, Rideaux Rouge-Maite Dugulako, Théâtre du Versant, Arroka, Biarritzeko Jauziak, Oldarra, Les Petits Débrouillards, Festilasai, Amalabak, Lapurdi Surf, Mizanbu, Médiathèque, Biarritz Événement, Lurrama, Denekin, Le Royal, Biarritz Océan, Big Festival, Ikastola, AEK-Gau-Eskola, ...).

Biarritz Culture, l'Atabal et Lassosalai entretiennent des liens étroits avec le Bureau de la Langue Basque de la Ville et sont des relais importants de la politique linguistique mise en œuvre à l'échelle de la commune.

Plusieurs projets conjoints ont été mis en place ces dernières années :

- **Edition de lexiques thématique** : sports urbains de glisse, musique.
- **Organisation d'événements** : Gorpitz, Musik'astea, Pâque en basque...
- **Mintzalasai** : Mise en place d'un programme d'activité orienté vers l'usage et la visibilité.
- **Réalisation d'un guide des loisirs bascophones.**

## Hizkuntz egitasmo bat lurraldearen neurrian

Eragileak haien elebitasun desmartxetan laguntzea da Euskara Bulegoaren helburuetako bat. Puntu hau agertzen da bestalde, Biarritze Hiria eta Euskararen Erakunde Publikoak 2007ko uztailaren 17an izenpetu eta 2011ko otsailaren 4an berri hitzarmenean.

2012an, Bulegoak berrogoi bat eragile lagundu ditu euskararen balioztatzeke eraman ekimenetan, itzulpen, komunikaziorako sustengu, antolaketaarako laguntza, aholku batzuen bitartez...

Elkarte, saltegi eta beste erakunde parapubliko batzuk horrela, (ALSH Moursicot, Ohakoa, Uda Leku, Rideaux Rouge-Maite Dugulako, Théâtre du Versant, Arroka, Biarritzeko Jauziak, Oldarra, Les Petits Débrouillards, Festilasai, Amalabak, Lapurdi Surf, Mizanbu, Médiathèque, Biarritz Événement, Lurrama, Denekin, Le Royal, Biarritz Océan, Big Festival, Ikastola, AEK-Gau-Eskola, ...) lankidetzaren hertsian lan egiten dute Euskara Bulegoarekin.

Biarritz Culture, Atabal eta Lassosalaiak lotura hertsia dituzte Hiriko Euskara Bulegoarekin eta herriaren mailan abian ezarri hizkuntz politikaren bitarteko garrantzitsuak dira.

Hainbat egitasmo uztarturik plantan ezarriak izan dira azken urteotan:

- **Hiztegi tematiko batzuen argitaratzea**: hiriko lerra kirolak, musika.
- **Gertakizun antolaketa**: Gorpitz, Musik'astea, Pazko euskaraz...
- **Mintzalasai**: erabilpena eta ikusgarritasunera buruz jotzeko jardura programa baten abiatzea.
- **Aisialdiak euskaraz eramateko gidaliburu baten burutzea.**

**VILLE DE BIARRITZ  
BIARRITZEKO HIRIA**

Euskara Bulegoa - Bureau de la langue basque  
05.59.41.59.97.  
euskara@biarritz.fr  
www.euskara-biarritz.eu

**EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA  
OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE**

05.59.31.18.34.  
eep-oplb@mintzaira.fr  
www.mintzaira.fr

**ATABAL**

05.59.41.73.20.  
atabal@wanadoo.fr  
www.atabal-biarritz.fr

**BIARRITZ CULTURE**

05.59.22.20.21.  
biarritz-culture@wanadoo.fr  
www.biarritz-culture.com

**LASSOSALAI**

05.59.23.53.15.  
parkalai@hotmail.com